


ENPRESA EDO NEGOZIOAREN AURKEZPENA



Gure enpresak “GurpiLotan” du izena, konkretuki GurpiLotan S.L, zeren eta gurea erantzukizun mugatuko sozietate bat da. Horrela erabaki dugu bost bazkide garelako eta ez daukagulako aurrekontu handirik , eta noski gure erantzukizuna mugatua izatea nahi dugulako enpresak porrot egiteko kasuan. Gure enpresak garraio-ostatu zerbitzu bat eskaintzen du hotel-kamioien bitartez zeinek bezeroak ostatu eta Espainia osotik garraiotzen die, Espainian bakarrik kokatuta gaude horrela ekonomia sustatzeko eta hemen bizi diren pertsonentzako lanak sortzeko. Gure enpresaren sortzaileak 5 bazkide gara, Adrián Sánchez Fernández, Erik Alcalde Orduña, Oier Ijalba Rio, Javier Tejero Alonso eta Eneko García Ramos.

Gure proiektua berritzaile gisa aurkitu ahal da gaur egun Espainian ez dagoelako horrelako gauza berdinek, gaur egun Espainian bakarrik aurki ditzakegu hotel normalak, non gauak pasa daitezke baina hotel eraikin normal bat da, mugitzen ez dena. Bestalde, bidaiatu egin daiteke hotela mugitu egiten baita eta Espainiako toki batetik bestera eraman ahal du jendea, auto bat bezala, baina ez da beharrezkoa gau bakoitzean hotel ezberdinak ordaintzea, ere jantokia aurki daiteke hotelaren barruan; beraz, janaria ere bertan prestatu daiteke.



Gure enpresak sortzen duen ongizate soziala mugikortasuna abantaila nagusia leku batetik bestera mugitzeko gaitasuna da, ostatu osagarriak aurkitzeko kezkatu gabe. Kokapenak alda ditzakezu zure lehentasunen edo bidaia-planen arabera. Kostuen aurrezte, epe luzera hotel tradizionaletan ostatu hartzea baino merkeagoa izan daiteke, batez ere maiz bidaiatzen baduzu. Ostatuan eta jaten aurretik dezakezu zure otorduak prestatuz. Gurpilotarekin independetzia gehiago daukazu zure espazio pribatua duzu eta ez daude sarrera edo irteera orduak mugatuta.

Zure gauzak eta ekipajea eraman ditzakezu, leku berriak arakaten dituzun bitartean etxean bezala sentituz. Kanpoko lekuetan kanpatuz naturarekin lotura duzu, naturaz gozatu eta ingurune desberdinak bizi ditzakezu erosotasunari uko egin gabe. Gure enpresak malgutasun handia ematen dizu, zure ibilbidea aukeratu dezakezu eta berehala alda dezakezu. Leku interesgarri bat aurkitzen baduzu, denbora gehiago egon zaitezke erreserba gehigarriez kezkatu beharrik gabe.

